



**JUNTA DEL VALLE DE AEZKOA
AEZKOAKO BATZARRE NAGUSIA**

31671 ARIBE (Navarra) · CIF: P3175000C
Tel: 948 76 43 75
junta@aezkoa.net
valledeaezkoa@gmail.com
www.aezkoa.org

Ariben, 2023ko maiatzaren 9an, eguerdiko ordu batean, Aezkoako Batzarre Nagusiak, bilkura arrunta egin du, lehenengo deialdian, legez deituta, haren presidente titularrak zuzenduta eta jarraian adierazten diren kideak bertan zirela, eguneko honako gai hauek aztertzeko:

BILDUTAKOAK

Batzarreburu jauna: Karlos Bueno Reka

Batzarrekide jaun/anderak:– Galarza Larrayoz, Maria Carmen – Merino Iriarte, Juan Esteban – Santomá Vicens, Gonzalo.

LEHENENGOA.- AURREKO BILKURAREN AKTA ONETSI.

2023ko martxoaren 10ean egindako bilkuraren akta onetsi da, eragozpenik agertu ez baita.

BIGARRENA.- 2023 OIHAN JARDUEREN PROIEKTUKO LANAK ESLEITZEA

Batzarre Nagusisaren Osoko Bilkurak otsailaren 7an onartutakoaren arabera, 2022-2023 kanpainako oihan-lanen proiektuari dagozkion hiru lote esleitzeko lizitazioa izapidetu zen, prozedura sinplifikatu eta lizitazio bidez, Nafarroako PLENA lizitazio elektronikoko plataformaren bidez.

Gonbidapena bidali zitzaion hamahiru enpresei eta profesionali, prozeduran parte hartzeko. Epea amaitu ondoren, bi eskaintza aurkeztu ziren 1. eta 2. loteetara, eta, horrenbestez, epea luzatu egin zen. Azkenik, lote bakoitzerako eskaintza bat egin zen. Eskaintzak irekita eta enpresei esleipen-proposamenak jakinarazi ondoren, baldintza-agirian eskatutako dokumentazioa aurkeztu dute guztiek horretarako emandako epean. Kontratazio Mahaiaren proposamena ikusita, Osoko Bilkurak erabaki du baso-lanen loteei dagozkien obra-kontratuak enpresa hauei esleitzea, adierazitako zenbatekoetan eta kontratazioa arautzen duten baldintza orokorreari eta esleipendunak aurkeztutako eskaintzei jarraikiz:

- 1. lotea (udako garbiketak eta itxiturak kentzea) - hasierako aurrekontua: hamalau mila berrehun eta laurogeita sei euro eta bederatzizentimo (14.286,09 €).

Iker Loreak aurkeztutako eskaintzari, 14.236,09 €, esleitu zaio, hau da, lizitazio-prezioaren % 1 jaitsi da.

- 2. lotea (udako sastrakak kentzea) - lizitaziorako hasierako aurrekontua: bederatzizentimo mila hirurehun eta berrogeita hamazazpi euro eta berrogeizentimo (9.357,40 €).

Zibur Trabajos Forestales enpresak aurkeztutako eskaintzari esleitu zaio: 9.157,40 €, hau da, lizitazio-prezioa % 2 jaitsi da.

- 3. lotea (Gibeleko pista) - lizitaziorako hasierako aurrekontua: sei mila eta hogeita hamabi euro eta hirurogeita hamazazpi zentimo.

Mendizarrak Indusketa eta Garraioei aurkeztutako eskaintzari, sei mila euroko (6.000,00 €) esleitu zaio, hau da, lizitazio-prezioa baino % 0,54 gutxiagoan.

Kontratu publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legearen 101. artikuluan xedatutakoaren arabera, adjudikazioaren eraginkortasuna eten eginen da hamar egun naturaleko epean, adjudikazioaren jakinarazpena

igortzen den egunetik zenbatzen hasita, baldin eta igorpen hori bitarteko elektronikoen bidez egiten bada.

HIRUGARRENA.- ONDARE HISTORIKOA TURISMO ERABILERARAKO BIRGAITZEKO LAGUNTZEN DEIALDIA.

Otsailean egindako bileran jakinarazi zen Estatuko Aldizkari Ofizialean 2023ko urtarrilaren 9an argitaratu zela laguntzen deialdia, turismo-erabilerarako Ondare Historikoaren lehiakortasuna hobetzeko eta hura dinamizatzeko programa garatzeko, Berreskurapen, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren esparruan. Deialdi horren laburpena apirilaren 13an BOEn argitaratu zen, eta eskaerak aurkezteko egun horretan hasi eta maiatzaren 12ra arte zabalik egonen da.

Entitate hau duela bi hilabete jarri zen harremanetan Monreal arkitektoarekin (hark, bere garaian, Orbaizetako Munizio Olan esku hartzeko proiektuaren prestaketan parte hartu zuen), deialdi honetan aurkeztu beharreko jardueren memoria prestatzeko, eta aurrera egin da jarduketan diseinuan.

Une honetan, dagoeneko badugu jarduketan memoria, 1.372.797,00 euroko aurrekontua duena, proiektu-ordainsariak eta obra-zuzendaritza barne, proiektuan hitzez hitz honela banatuta agertzen den moduan:

OBRA RESUMEN	2024	2025	2026	TOTAL
ACTUACION 01: NUEVA FASE CONSOLIDACION RUINAS ZONA INDUSTRIAL				
ACT.01_DESBROCES Y VACIADOS	8.774,00	1.097,00	1.097,00	10.968,00
ACT.01_SANEADO Y LIMPIEZA MUROS Y SUELOS	10.322,00	41.293,00		51.615,00
ACT.01_CANTERIA MUROS Y PAVIMENTOS		165.313,00		165.313,00
ACT.01_CANAL SILLERIA		14.700,00		14.700,00
ANDAMIOS Y MEDIOS		13.886,00		13.886,00
ACTUACION 02: MEJORA FUNCIONAL Y SEGURIDAD DE USO				
ACT.02_ESCALERA _CONSOLIDACION Y CUBIERTA CON PIZARRA		48.518,00		48.518,00
ACT.02_SANEAMIENTO Y PAVIMENTOS PRIMERA PLATAFORMA_RESIDENCIAL		85.612,00		85.612,00
ACT.02_ANTEPECHOS Y CONSOLIDACION MUROS EN RECORRIDOS		98.070,00		98.070,00
SDCSDSDCD				
ACTUACION 03: MEJORA DE LA EXPERIENCIA TURISTICA_NUEVA CONEXION				
ACT. 03_NUEVA ESCALERA CONEXION			26.175,00	26.175,00
ACTUACION 04:CONSOLIDACIONES_REPARACIONES PUNTUALES				
ACT.04_ZONA CARBONERAS Y CAMINO CARBONERAS	8.000,00	57.650,00		65.650,00
ACT.04_ZONA CAUCE (1312 m2)		75.719,00	32.451,00	108.170,00
ACT.04_ZONA ACTUACION ARQUEOLOGICA		9.840,00	9.840,00	19.680,00
CONTROL DE CALIDAD		3.531,00	883,00	4.414,00
SEGURIDAD Y SALUD	1.544,00	10.811,00	3.089,00	15.444,00
RESIDUOS	5.269,00	8.782,00	3.513,00	17.564,00
PEM OBRAS	33.909,00	634.822,00	77.048,00	745.779,00
Gastos Generales y Beneficio Industrial	5.087,00	95.156,00	11.557,00	111.800,00
IVA	8.189,00	153.200,00	18.607,00	179.996,00
TOTAL ANUALIDADES OBRA	47.185,00	883.178,00	107.212,00	1.037.575,00
OTROS TRABAJOS	2024	2025	2026	TOTAL
OTROS: ESTUDIOS ARQUEOLOGICOS	87.769,00	87.769,00	19.505,00	195.043,00
OTROS:HONORARIOS ARQUITECTO_PROYECTO+DIRECC	17.500,00		17.500,00	35.000,00
OTROS:HONORARIOS ARQUITECTO_TÉCNICO_PROYECTO+DIRECC	7.500,00		17.500,00	25.000,00
OTROS:HONORARIOS ESTUDIO VEGETACION Y PLAN MANTENIMIENTO	3.000,00		3.000,00	6.000,00
OTROS: HONORARIOS LEVANTAMIENTO TOPOGRAFICO_3D FÁBRICA	11.200,00		4.800,00	16.000,00
TOTAL BASE IMPONIBLE OTROS TRABAJOS	126.969,00	87.769,00	62.305,00	277.043,00
IVA	26.664,00	18.431,00	13.084,00	58.179,00
TOTAL ANUALIDADES OTROS TRABAJOS	153.633,00	106.200,00	75.389,00	335.222,00
RESUMEN	2024	2025	2026	TOTAL
TOTAL ANUALIDADES OBRA (Con 15%GG y BI e IVA)	47.185,00	883.178,00	107.212,00	1.037.575,00
OTROS TRABAJOS (Con 21%IVA)	153.633,00	106.200,00	75.389,00	335.222,00
TOTALES	200.818,00	989.378,00	182.601,00	1.372.797,00

Deialdia eta ORBAIZETAKO ERREGE MUNIZIO OLA proiektuan garatu beharreko jardueren memoria ikusita, Osoko Bilkurak erabaki du Carlos Bueno Reca Aezkoa Ibarreko Batzar Nagusiko lehendakariari berariaz ahalmena ematea erakunde hau ordezkatzeko, proiektua aurkezteko behar diren agiri guztiak sinatzeko eta abenduaren 22ko ICT/1363/2022 Agindua araututako laguntzak izapidetzeko. Agindu horren bidez, turismo-erabilerako Ondare Historikoa hobetzeko eta dinamizatzeko Programa arautzen dituen oinarriak ezartzen dira, eta 2022ko ekitaldirako deialdia egiten da, Orbaizetako Munizioen Fabrikaren Memoria aurkeztuko den Berreskurapen, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren esparruan. Era berean, Batzarre Nagusi honetako idazkariari ahalmena ematen zaio, Batzarre Nagusiaren ordezkari gisa egiaztatutako pertsona den aldetik, espedientea izapidetzeko.

LAUGARRENA.- DIGITALIZAZIO-PROIEKTUA FINANTZATZEKO HITZARMENA (PIRINIOETAN OREKA ETA EKITATEA LORTZEKO LURRALDE-PROIEKTUA).

Proiektu Estrategikoen Zuzendaritza Nagusiak hitzarmen baten zirriborroa igorri dio Batzarre Nagusi honi, Aezkoako Batzarre Nagusiari dirulaguntza bat zuzenean emateko, Aezkoan digitalizazio proiektu bat gauzatzeko. Proiektu hori ekintzailtza eta mikroenpresak sustatzeko orekarako eta ekitatetako lurralde-proiektua da, Nafarroako Ekialdeko Pirinioetako Ekonomia Suspertzeko Planaren barruan.

Hitzarmenaren testua berrikusi da, eta, aurkeztutako idazketari dagokionez, eskatu da aurreikustea dirulaguntzaren %100 aurreratuko dela, Batzarre Nagusiak izan ez dezan inbertsioa ordaintzeko likidezia arazorik. Behin betiko hitzarmenean jasoko den puntu horrez gain, jasota geratzen da Sisnet enpresak bere gain hartzen duela proiektua idazteak dakarren kostu osoa.

Batzarre Nagusiaren Osoko Bilkurak erabaki du Aezkoako digitalizazio proiekturako Batzarre Nagusiari dirulaguntza bat zuzenean emateko hitzarmena onartzea, jarraian adierazten diren klausulei jarraikiz. Onespena, beti ere, dirulaguntza osorik aurreratuko dela berariaz jasota gelditzearen menpe gelditu da, aurreko paragrafoan adierazi den moduan. Batzarre Nagusiburuari sinatzeko ahalmena eman zaio. Honako hau da hitzarmenaren testua:

- -----

Lehenengoa.- Urriaren 30eko 262/2019 Foru Dekretuaren bidez, Lurralde Antolamendu, Etxebizitza, Paisaia eta Proiektu Estrategikoetako Departamentuak eskumena du lurralde garapen iraunkorreko politikak planifikatu eta garatzeko, eta Proiektu Estrategikoen Zuzendaritza Nagusiaren bidez, lurralde planak eta proiektuak sustatu eta kudeatzen ditu, zeharka eta beste erakunde batzuekin koordinatuta.

Ildo horretan, Proiektu Estrategikoen Zuzendaritza Nagusia gidatzen ari da Nafarroako Ekialdeko Pirinioetako Ekonomia Suspertzeko Planaren aplikazioa, 2018ko azaroaren 8an Nafarroako Parlamentuak onartutako "Ekialdeko Pirinioetako haranen egoera sozioekonomikoa aztertzeke Ponentziaren txostenaren" diagnostikoari, oinarriari eta helburuei jarraikiz.

Bigarrena.- Hitzarmen honetan aurreikusitako laguntzak, Nafarroako Ekialdeko Pirinioetako Ekonomia Suspertzeko Planekoak diren aldetik, lurralde proiektu berriak finantzatzera bideratuta daude Pirinioetako Planaren lurralde-

eremuan ekonomia berdea eta/edo digitala sustatzen duten berronkarako eta ekintzailerako, ekintzaileraren eta mikroenpresen bidez. 4. inbertsioaren barruan kokatzen da ("Berronkarako eta ekintzailerako lurralde-proiektu berriak"), 23. Osagaiaren barne dagoena ("Politika publiko berriak, lan merkatu dinamikoa, erresilientea eta inklusiboa lortzeko"). Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren, Ministro Kontseiluaren 2021eko apirilaren 27ko Erabakiaren bidez onartua) eta Espainiako berreskuratze- eta erresilientzia-planaren ebaluazioa onartzeari buruzko Kontseiluaren Betearazpen Erabakiaren bidez (Council Implementing Decision – CID), 2021eko uztailaren 13koa.

Hirugarrena.- Aezkoako Batzarre Nagusiak, bere eskumenak garatzen eta ekintzailerak eta enplegua bultzatzeko, helburu hori lortzeko behar diren oinarriko baliabideak erraztearen alde egiten du, 4. inbertsioan ("Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren onkarako eta ekintzailerako lurralde-proiektu berriak") sartutako "Ekintzailerak eta Mikroenpresa" proiektuaren barruan.

Inbertsio-jarduera horien barruan, eta bailara horretan kokatutako 60 ekintzailerari estaldura emateko, bere jarduera-eremuan jarduera ekonomikoa garatzeko beharrezkoak diren oinarriko baldintzak sortzearen aldeko apustua egiten du, eta gaur egun dagoen ehun ekonomiko osoarekiko konektagarritasuna bermatzen du, bai eta etorkizunean lurraldean ezar daitezkeen ekimen ekintzailerentzat ere.

Horretarako, proposatzen du, Telekomunikazioei buruzko maiatzaren 9ko 9/2014 Lege Orokorrean eta Abiadura handiko telekomunikazio elektronikoen sareak hedatzearen kostua murrizteko neurriei buruzko irailaren 9ko 330/2016 Errege Dekretuan ezarritako xedapenekin bat etorritik, Aezkoa ibarrean mota horretako komunikazio-sareak hedatzeko erabil daitezkeen azpiegiturak egitea. Jarduera hori beharrezkoa da inguruko ekintzailerak eta mikroenpresen kalitatezko eta lehiakortasuneko garapen digitalerako, eta helburua da biztanleria finkatzea eta ekintzailerak berriak lurraldera erakartzea.

Laugarrena.- Europako Kontseiluak, jabeturik une historiko honetan beharrezkoa dela aurrekaririk gabeko ahalegina egitea eta Europar Batasunean konbergentzia, erresilientzia eta eraldaketa bultzatuko dituen planteamendu berritzaileak proposatzea, irismen handiko neurri-sorta bat adostu zuen 2020ko uztailaren 21ean. Neurri horiek 2021-2027rako urte anitzeko finantza-esparrua (MFP) eta Berreskurapenerako Tresna Europarra («Next Generation EU») bateratzen dituzte. Tresna horren elementu nagusia Berreskuratze eta Erresilientzia Mekanismoa da, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko 2021/241 (EB) Erregelamenduak ezarria. Berreskurapenerako Europako Funtsaren finantza-baliabideak Ministroen Kontseiluaren 2021eko apirilaren 27ko Erabakiz onartutako Eraldaketarako eta Erresilientziarako Berreskuratze Planaren bidez gauzatuko dira, eta 2021eko uztailaren 13ko Kontseiluaren Betearazpen Erabakian (Council Implementing Decision-CID) ezarritakoaren arabera, Espainiaren berreskuratze- eta erresilientzia-planaren ebaluazioa onartzeari buruzkoa.

Bosgarrena.- Berreskurapen, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren esparruan, Lan eta Gizarte Ekonomia Ministerioak eta Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoak modu esanguratsuan parte hartzen dute 23. Osagaian ("Politika

publiko berriak lan-merkatu dinamiko, erresiliente eta inklusibo baterako"), VIII. Arlo Zainketen eta enplegu-politiken ekonomia berria"), VIII. Politika arloaren barnekoa ("Zainketen ekonomia berria eta enplegu-politikak").

Osagai honetan proposatutako erreformen eta inbertsioen artean, 4. inbertsioa, "Berrorekarako eta ekitaterako lurralde-proiektu berriak" sartzen dira, bereziki kalteberak diren kolektiboen proiektuak eta "Ekintzailtza eta mikroenpresak" barne.

Pandemiak eragindako egoerak larriagotu egiten du iraupen luzeko langabeen eta mugako egoeretan zeuden beste kolektibo batzuen kalteberatasuna, eta produkzio-sarea eraldatu egiten da, mikroenpresetan oso eragin handia izanik.

Egoera horri aurre egiteko, beharrezkoa da esku-hartzeko proiektuak eta ildoak abian jartzea, kolektibo kalteberen lan-arloko eta gizarte-arloko premiei erantzuteko, bai eta produkzio-sistema indartua ahalbidetzeko ere, ekintzailtza eta enplegu kolektiboa babestuz, baita mikroenpresak ere. Egokitzapen horrek berezko eta beharrezko eraldaketa digitala eta berdea dakar berekin, bai eta ekonomia berdea sustatzea ere, laneratzeko proiektu integratuen bidez. Proiektu horietan, ahulena lan-merkatuan sartzeko bidea erraztu dezaketen eragile guztiek parte hartuko dute.

Horretarako, Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren 23. osagaiak, 4. inbertsioan ("Berrorekarako eta ekitaterako lurralde-proiektu berriak"), honako hauek jasotzen ditu: alde batetik, bereziki kalteberak diren kolektiboentzako enplegu-proiektuak sustatzera bideratutako inbertsioak egin behar direla, eta, bestetik, ekintzailtza eta enplegu kolektiboa bultzatzeko esku hartzeko proiektuak eta ildoak sustatu behar direla, bai eta biztanleria finkatu behar dela ere, arreta berezia jarriz produkzio-eraldaketari eta ekonomia berde eta digitalerantz aurrera egiteari.

Ekintzailtza proiektuei eta mikroenpresei dagokienez, funtsezkoa da erronka demografikoari helduko dioten eta produkzio-eraldaketa erraztuko duten lurralde-proiektu berrietan inbertitzea, bereziki ekonomia berde eta digital baterantz.

Seigarrena.- 2021eko abenduaren 2an onartu zen 46/2021 Foru Agindua, Lurralde Antolamendu, Etxebizitza, Paisaia eta Proiektu Estrategikoetako kontseilariarena, zeinaren bidez onartzen baita Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko hitzarmena, ekintzailtza eta mikroenpresak sustatzeko lurralde-proiektu bat garatzeko, Nafarroako Ekialdeko Pirinioetako Ekonomia Sustertzeko Planaren zati gisa, urriaren 19ko 902/2021 Errege Dekretuak, "Berrorekarako eta ekitaterako lurralde-proiektu berriak" inbertsioaren jardueren garapena finantzatzeko 2021eko aurrekontu-ekitaldian dirulaguntzak zuzenean ematea arautzen duenak, ezarritakoaren arabera.

Zazpigarrena. – Hitzarmen horri lotutako Jarduketa Planak kudeaketa-tresnatzat hartzen du Toki Erakundeekin 3 hitzarmen sinatzea 2023ko ekitaldirako, lurraldearen ehun ekonomikoarekiko konektagarritasuna bermatzeko.

Zortzigarrena. – Abenduaren 28ko 35/2022 Foru Legearen bidez onartutako 2023rako Nafarroako Aurrekontu Orokorretan jasota dago 330000 33100 7609 921130: MRR Pirinioen orekarako eta ekitaterako lurralde-proiektua:

Aezkoako Batzarre Nagusiaren digitalizazioa gastu-partidari aplikatutako kreditua, 300.000 eurokoa.

Bederatzigarrena. – Dirulaguntza horiek, Nafarroako Gobernuaren 2023rako gastuen aurrekontuan jasotakoaren arabera, Europako Berreskuratze Tresnatik («Next Generation EU») eratorritako finantza-baliabideen bidez finantzatuko dira, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko 2021/241 (EB) Erregelamenduak ezarritako Berreskuratze eta Erresilientzia Mekanismoaren bidez, eta ezin izanen dira Europar Batasuneko beste tresna edo funts batzuen bidez finantzatu. Aplikatzekoak izanen dira, beraz, Administrazio Publikoa modernizatzeko eta Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Plana gauzatzeko premiazko neurriak onartzen dituen abenduaren 30eko 36/2020 Errege Lege Dekretuan eta Berreskuratze eta Erresilientzia Mekanismoak finantzatutako inbertsioei aplikatu beharreko Estatuko eta Europako gainerako araudian aplikatzekoak diren xedapenak.

Azaldutakoagatik guztiagatik, bi alderdiek hitzarmen hau sinatzea adostu dute, klausula hauen arabera:

Lehena. Xedea.

Hitzarmen honen xedea da abenduaren 28ko 35/2022 Foru Legearen bidez onartutako 2023ko Nafarroako Aurrekontu Orokorretan jasota dagoen Aezkoako Batzarre Nagusiari dirulaguntza ematea, "MRR Pirinioen orekarako eta ekitateterako Lurralde Proiektua: Aezkoako Batzarre Nagusiaren digitalizazioa" proiektua finantzatzeko.

Proiektua Nafarroako Ekialdeko Pirinioetako Ekonomia Suspertzeko Planaren barruan dago. Plan horrek, A lerroan, jarduera ekonomikoa garatzeko beharrezkoak diren oinarritzko baldintzak sortzearen alde egiten du, gaur egun dagoen sare ekonomiko osoarekiko konektibitatea bermatzeko, bai eta etorkizunean lurraldean ezar daitezkeen ekimen ekintzaileentzat ere.

Jarduera zehatza da abiadura handiko komunikazio elektronikoen sareak Aezkoa ibarreko zazpi kokagune estrategikotan hedatzeko erabil daitezkeen azpiegiturei ekitea, inguruko ekintzailetzen kalitatezko garapen digital lehiakorra lortzeko, biztanleria finkatzeko eta ekintzaile berriak lurraldera erakartzeko.

Zehazki, ondoko lekuak lurpeko zuntz optikoa bideratzeko zangak egitea aurreikusten da. Zangak herrien artean dauden eta jabetza publikoko bideen areketan egitekoak dira. Lotura hauek proposatzen dira: Garralda-Aria, Aria-Orbaizetako Ola, Orbaizetako lotunea, Orbaizeta-Orbara, Orbara-Hiriberri, Orbara-Betolegi.

Bigarrena. Mugarriak eta helburuak.

Hitzarmen honen xede den dirulaguntza, nolana ere, Oneratzeko, Eraldatzeko eta Erresilientziarako Planean ezarritako mugarriak eta helburuak betetzearen, gauzatzaren eta gauzatzaren mende dago. Plan hori Europako Batzordeak aldeko ebaluzioa egin du Kontseiluaren Betearazpen Erabakian.

Hitzarmen honen xede diren funtsekin bete behar diren mugarriak eta helburuak honako hauek dira: BERROREKARAKO ETA EKITATERAKO LURRALDE-PROIEKTU BERRIAK, EKINTZAILETZA ETA MIKROENPRESAK. C23.I04. BERRESKURATZE-ETA ERRESILENTZIA-MEKANISMOA:

2023.eko mugarria: Hitzarmen hau sinatzea.

2023.nerako helburua: Gutxienez 60 ekintzailetza-ekimen eta mikroenpresa.

Mugarri eta helburu horiek adierazitako datetan betetzeak 23. osagaiaren (C23.I04) 4. inbertsiorako Europako Batzordeak baliozkotutako Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planean jasotako mugariak eta helburuak betetzen lagunduko du.

Hirugarrena.- Dirulaguntzaren zenbatekoa eta erakunde onuraduna.

Bada aurrekonturik 2023ko gastuen aurrekontuan, zehazki 330000 33100 7609 921130 partidaren [PEP: E-21-000448-01], Pirinioen orekarako eta ekitaterako lurralde-proiektua: Aezkoako Batzarre Nagusiaren digitalizazioa izenekoa, 300.000 eurokoa. Dirulaguntzaren erakunde onuraduna Aezkoako Batzarre Nagusia da (IFZ: P3175000C).

Laugarrena. – Diruz lagun daitezkeen gastuak.

Hitzarmen hau sinatu aurretik gauzatutako jarduerak diruz laguntzeko modukotzat joko dira, baldin eta hitzarmenaren xede den inbertsioa gauzatzearekin zuzenean lotutako gastuak badituzte.

Inbertsioaren euskarri den BEZa diruz lagun daitezkeen gastutzat hartuko da, betiere erakunde onuradunak berreskuratu edo konpentsatu ezin badu.

Bosgarrena.- Aezkoako Batzarre Nagusiaren konpromisoak eta betebeharrak.

Aezkoako Batzarre Nagusiak abiadura handiko komunikazio elektronikoen sareak hedatzeko behar diren azpiegitura-obra egin ditu. Jarduketa hori MRR Pirinioen orekarako eta ekitaterako lurralde-proiektua: Aezkoako Batzarre Nagusiaren digitalizazioa proiektuaren garapenari erantzuten dio. "Ekintzailtza eta mikroenpresen" proiektu bat da, 4. inbertsioan sartuta dagoena ("Berrerekarako eta ekitaterako lurralde-proiektu berriak").

Inbertsio publiko horiek ekintzailtza, enpresaritza, biztanleria eta enplegua finkatzea eta tokiko administrazioen trebakuntza bera bultzatzen laguntzen dute, Nafarroako Ekialdeko Pirinioetako Ekonomia Suspertzeko Planaren A ildoaren bitartez: A- Pirinioetan jarduera ekonomikoa garatzeko oinarritzako baldintzak sortzea (inbertsio publikoa).

Finantzatu beharreko inbertsioak ekintzailtza digitala garatzera bideratuta daude, eta 100- Norberaren konturako lanari eta enpresak sortzeari laguntzea etiketa betetzen laguntzen dute, Berreskurapen, Eraldaketa eta Erresilientzia Planean hartutako konpromisoen arabera.

Aezkoako Batzarre Nagusiak «kalte nabarmenik ez eragiteko» printzipioa ("do not significant harm-DNSH") erabat betetzen dela bermatuko du, bai eta etiketatze klimatiko eta digitala ere, Ministroen Kontseiluak 2021eko apirilaren 27an onartutako Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planean eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021/241 (EB) Erregelamenduan, 2021eko otsailaren 12koan, proiektuaren diseinuaren eta betearazpenaren fase guztietan Berreskuratze eta Erresilientzia Mekanismoa ezartzen duenean, aurreikusitakoaren arabera.

Aezkoako Batzarre Nagusia erakunde eskudunek egin ditzaketen egiaztapen-jarduketan mende dago. Nolanahi ere, Berreraikitze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planerako ezartzen diren jarraipen-, kontrol- eta ebaluazio-jarduketei men egin beharko die, bai eta EBko Berreskuratze eta Erresilientzia Mekanismoarako ezartzen diren eta nahitaez aplikatu behar diren informazioari eta publizitateari, kontrolari, egiaztapenari, jarraipenari, ebaluazioari eta

Europar Batasuneko Barne Araudiak ezarritako gainerako betebeharreri ere. Aezkoako Batzarre Nagusiak konpromisoa hartzen du Proiektu Estrategikoen Zuzendaritza Nagusiari informazioa emateko, egindako egiaztapen-jarduketa horien emaitzei buruz, hark hala eskatzen dionean.

Oro har, Aezkoako Batzarre Nagusiak Dirulaguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legearen 9. artikuluan ezarritako betebeharrak bete beharko ditu, eta, bereziki, honako hauek:

- Kontratisten hautatzeko, Kontratu Publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legearen eta Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 6ko 6/1990 Foru Legearen aginduak betetzea.

- Hitzarmen honetan diruz lagun daitezkeen gastuak 2023ko urriaren 31 baino lehen egitea, eta jarduera hori egin izana justifikatzea, hitzarmen honen bosgarren erabakian xedatutakoaren arabera.

- Dirulaguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legearen 13.2 artikuluan ezarritako dirulaguntzen onuradun izateko debekurik ez izatea.

- Proiektu Estrategikoen Zuzendaritza Nagusiari jakinaraztea beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabiderik lortu bada diruz lagundutako jarduerak finantzatzeko.

- Hitzarmen honen babesean garatutako jarduerak gauzatzeak izan dezakeen kosturik handiena bere gain hartzea, hala badagokio.

- Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko maiatzaren 17ko 5/2018 Foru Legeak ezartzen dituen gardentasun-betebeharrak betetzea.

- Jasotako funtsen jatorria ezagutaraztea; horrela, beren ekintzen dokumentazioan eta hedabideetan Europar Batasunak finantzatutako Next Generation EU delakoaren berri eman beharko dute, hitzarmen honetan araututako dirulaguntzekin finantzatutako jarduketetarako.

- Telekomunikazioei buruzko maiatzaren 9ko 9/2014 Lege Orokorrean eta Abiadura handiko komunikazio elektronikoen sareak hedatzeko kostua murrizteko neurriei buruzko irailaren 9ko 330/2016 Errege Dekretuan xedatutakoa betetzea.

- Aezkoako Batzarre Nagusiak justifikatu beharko du gauzatu beharreko proiektuen mugariak eta helburuak behar bezala bete direla, irailaren 29ko HFP/1030/2021 Aginduan, Eraldaketa eta Erresilientzia Plana kudeatzeko sistema taxutzen duenean, eta aplikatzekoak diren gainerako arauetan, adierazitako moduan eta baldintzetan.

Seigarrena. – Ordaintzeko modua.

Dirulaguntza ordainketa bakar batean ordainduko da, jarduketak egin direla egiaztatuta eta horien ordainketa justifikatu ondoren.

Ordainketa-eskaerarekin batera, dokumentazio hau aurkeztu beharko da: egindako jardueren azalpen-memoria; egindako gastuak eta dagozkien ordainketak justifikatzen dituen egiaztapenak; justifikazio-kontua; erakunde onuradunaren idazkaritzaren ziurtagiria, honako alderdi hauek adierazita: Obren finantzaketa, beste sail batzuetatik, beste administrazio publiko batzuetatik, beste erakunde publiko zein pribatuetatik edo partikularretatik jasotako, emandako edo ebazteke dauden dirulaguntzak berariaz adierazita; kontratistak hautatzeko, Kontratu Publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legearen eta Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 6ko 6/1990 Foru Legearen ezarritako aginduak bete direla, baldin eta diruz lagundu daitezkeen gastuaren zenbatekoa 30.000 eurotik gorakoa bada obra egitearen ondoriozko kostuaren kasuan, edo 12.000 eurotik gorakoa ondasun-horniduraren kasuan.

os: La financiación de las obras, con indicación expresa de las subvenciones recibidas, concedidas o pendientes de resolución, de otros Departamentos, de otras Administraciones Públicas, de otros entes públicos o privados o de particulares; Que en la selección de los contratistas se han seguido las prescripciones de la Ley Foral 2/2018, de 13 de abril, de Contratos Públicos y de la Ley Foral 6/1990, de 6 de julio, de Administración Local de Navarra, en el caso de que el importe del gasto subvencionable supere la cuantía de 30.000 euros en el supuesto de coste por ejecución de obra, o de 12.000 euros el supuesto de suministro de bienes de equipo o prestación de servicios por empresas de consultoría o asistencia; Que los impuestos indirectos abonados correspondientes a esta subvención, no son susceptibles de recuperación o compensación por parte de la entidad beneficiaria, según lo dispuesto en el artículo 28.8 de la Ley Foral 11/2005, de 9 de noviembre, de Subvenciones; El cumplimiento por parte de la entidad beneficiaria de las obligaciones previstas en el título II de la Ley Foral 5/2018, de 17 de mayo, de Transparencia, acceso a la información pública y buen gobierno.

Justifikazio dokumentala 2022ko azaroaren 15era arte aurkeztu beharko da. Justifikazioa aurkezten atzeratzen den egun baliodun bakoitzeko dirulaguntzaren % 5 deskontatuko da. 2023ko azaroaren 30ean agiri bidezko justifikaziorik jaso ezean, edozein ordainketa jasotzeko eskubidea galduko da.

Zazpigarrena.- Bateragarritasun-araubidea.

Hitzarmen honetan araututako dirulaguntza bateragarria izanen da helburu bererako beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuekin, edozein administrazio edo erakundek (publiko zein pribatu) emandakoa, baldin eta diruz lagundu beharreko kontzeptuetan bikoiztasunik ez badago eta gastuen trazabilitatea identifikatzen bada.

Hala ere, dirulaguntza hori bateraezina da inbertsio-proiektu berberak gauzatzeko Erkidegoko beste funts batzuk jasotzearekin, eta ezin da finantzaketa bikoitzik egin. Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko 2021/241 (EB) Erregelamenduaren 9. artikuluan xedatutakoaren arabera, Berreskuratze eta Erresilientzia Mekanismoak finantzatutako inbertsio-proiektuek Batasunaren beste programa eta tresna batzuen laguntza jaso dezakete, betiere laguntza horrek tresna horrek finantzatutako kostu bera estaltzen ez badu.

Onuradunak jakinarazi beharko du helburu bererako beste dirulaguntza edo laguntza batzuk lortu dituen, eta ezin izanen du kostu bererako finantzaketa bikoitza lortu, edozein dela emaila, administrazio edo erakunde publikoa, nazionala edo Batasunaren beste programa eta tresna batzuetakoa.

Zortzigarrena. – Hitzarmenaren indarraldia.

Hitzarmen honek sinatzen den egunetik dirulaguntza ordaintzen den arte izanen du eragina.

Aldeetako batek hitzarmenean hartutako konpromisoak betetzen ez baditu, hitzarmena iraungi egingen da.

Bederatzigarrena. – Ez-betetzeak eta itzulketak.

Hitzarmen honetan edo Dirulaguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legearen 25. artikuluan eta horrekin bat datozen artikuluetan aurreikusitako betebeharrak betetzen ez badira, kobratzeko eskubidea galduko da, osorik edo zati batean, eta/edo jasotako dirulaguntzaren zenbateko osoa edo zati bat itzuli beharko da, proportzionaltasun-printzipioa aplikatuz, hori guztia foru lege beraren 35. artikuluan xedatutakoaren arabera. Foru lege horren IV. tituluaren aurreikusitako arau-haustea eta zehapenak aplikatuko dira, dirulaguntza ematearen zuzeneko izaerari datxekionean izan ezik.

Erakunde onuradunak bete beharrekoa modu esanguratsuan hurbiltzen bada guztiz betetzera, eta hartutako konpromisoak asetzerara bideratutako

jarduera argi eta garbi egiaztatzen badu, itzuli beharreko zenbatekoa dirulaguntza ematerakoan ezarritako baldintzen bolumenak eta ez-betetzeak zehaztuko dute, proportzionaltasun-irizpidearen arabera.

Hamargarrena.- Hitzarmenaren izaera.

Hitzarmen honek izaera juridiko administratiboa du. Bertan berariaz aurreikusi ez den orori dagokionez, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legean xedatutakoa beteko da.

Sor daitezkeen eztabaidak Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioaren eskumenekoak izanen dira.

Era berean, 2023rako aurrekontua gauzatzeko oinarrien 13. oinarrian ezarritakoarekin bat etorritik, Osoko Bilkurak, aurreko paragrafoetan adierazitako hitzarmena onartu ondoren, aurrekontu-aldaketa bat egitea erabaki du, eta diru-sarreraren arabera kreditu bat sortzea:

Sortutako kreditua: 300.000,00 €, 41401-6260002 €-ko aurrekontu-aplikazioan. "Aezkoa ibarra digitalizatzeko proiektua", berreskuratze-, eraldatze- eta erresilientzia-funtsetatik datozen diru-sarrerekin, Nafarroako Gobernuaren aurrekontuko aurrekontu-partida: MRR Pirinioen orekarako eta ekitaterako lurralde-proiektua – 330000 33100 7609 921130 kontu-lerroa: Aezkoako Batzarre Nagusiaren digitalizazioa, 300.000 euroko guztizko zenbatekoarekin.

Aurrekontu-aldaketa hori indarrean jartzeko, nahikoa da Batzarre Nagusiaren Osoko Bilkuraren erabakia.

BOSGARRENA.- BESTE GAI BATZUK

- Ecos travel-en proposamena – Orreaga-Aezkoa gida

Ecos enpresak idazti bat igorri du, *Pirineos paso a paso* bildumaren berri emateko. Horren barnean gida bat argitaratzea aurreikusten da, lurraldeko hamar ibilbide onenak bilduko dituen (herri batzuk aipatuko dira eta ostatuak eta jatetxeak gomendatuko dira). Batzarre Nagusiari publizitate-orri bat eskaini diote, berrehun euroan. Proposamena aztertuta, Batzarre Nagusiak uste du ezin duela parte hartu bailarako herri eta establezimendu batzuk bakarrik aipatzen dituen argitalpen batean, eta, beraz, enpresa horrekin zuzenean hitz egitea erabaki du, establezimendu eta udalerriri guztiak sartzeko aukera aurreikus dezakeen ikusteko.

- Batzarre-aretoko argien aurrekontua

Batzarre-aretoko argiztapena berritzeko bi aukera dituen aurrekontua aurkeztu dela jakinarazi da. Proposatutako aukerak berrikustea erabaki da, eta jarduera horrek laster argitaratuko diren Explorora Sarearen dirulaguntzen barruan lekurik ba ote duen ikustea.

- Ibilbideak berriz homologatzea

Etorkizunean UGETak finantzatzeko aurkeztutako proposamena da, aurreikusitako laguntza-deialdiak argitaratuz gero aurkeztekoa. 50C eta 51C ibilbideak bakar bat bihurtzea proposatzen da, adar bat izanen lukeena. Ibilbide tematiko gisa aurkeztea dago. Batzarre Nagusiak proposamenaren jakinaren gainean gelditu da, eta dagokionean aztertuko du, dirulaguntza lerrorik dagoen jakin ondoren.

- Proiektu estrategikoak. Bilera.

Batzarreburuak informatu du duela egun batzuk Nafarroako Gobernuko Proiektu Estrategikoko Zuzendaritza Nagusiarekin bilera bat izan zela. Bilera horretan Batzarre Nagusiarentzat interesgarriak diren hainbat gai jorratu dira. Alde batetik, uztaileko antolatzen den komunalei buruzko udako ikastaroa zati batean finantzatzeko aukerari buruz hitz egin zen. Hasiera batean, laguntza ekonomikoa ematearen aldekoak dira, eta aurreikusitako gastuen azken banakapena aurkeztea falta zaie.

Opposako nabeari dagokienez, espazio hori Aezkoa 2030 proiektuarekin bat egiteari buruz hitz egin da, nabe horretan Aezkoa 2030 prozesutik eratorritako guztia landu ahal izateko, eta, dagoeneko, badaude lokaletan martxan jartzeko ideia batzuk.

- Poctefa inbertsioak bisitatzea

Maiatzaren 12an, Nafarroako Gobernuko ordezkariak POCTEFA SASCIRATI-2015 proiektuaren esparruan egindako inbertsio guztiak ikuskatzera joanen dira, eta Kultur Ola izan da lehen bisita. 4 Ibarrek elkarteari eta Biosfera Erreserbari lotutako Kultur Ola zentroa aurkeztu nahi da.

Bestalde, adierazi da ibarrean dauden bunkerrak bisitatzea helburu izanen duen ibilbide berri bat egiteko proposamena egin dela; Aezkoa da bailara bakarra memoria historikoa xedearekin proiekturik garatu ez duena, eta Auritzen dagoen ibilbidearen antzeko ezaugarriak dituen ibilbide bat egitea eta bunker horien eraikuntzari eta erabilerari buruzko informazio-panelak egitea izanen litzatekeela asmoa. Datorren ostegunean arratsaldeko zortzietan bilera bat dago gai honen inguruan aurrera egiteko.

SEIGARRENA.- ESKAERAK ETA GALDERAK

Ez dira egin.

Eta aztergai gehiagorik egon ez denez, bilera amaitutzat eman da 14:00ean. Esandakoa jasotzeko akta hau luzatu da, eta, nik, idazkariak, egiaztatzen dut.